

**NAFARROAKO TOKI ENTITATEETAKO DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK ANTOLATZEKO
BALDINTZAK: DOKUMENTUAK SAILKATZEKO KOADROA ETA JARDUERAKO
SEKTOREEN TAULA**

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzua
Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusia
2018ko ekainaren 1a.

DOKUMENTU ELEKTRONIKOEN ANTOLAKETA

Dokumentu elektroniko kudeaketa zuzena egiteko oinarritzko eta funtsezko bi elementuk bat egin behar dute: dokumentuak sailkatzeko koadroak eta jarduerako sektoreen taulak.

Espediente edo dokumentu elektroniko guztiek beren metadatuetan bereziki aipatu behar dituzte dokumentuak **sailkatzeko koadroaren kategoria berezi bat** eta **jarduera espezifiko sektore bat**.

DOKUMENTUAK SAILKATZEKO KOADROA

Sailkapen funtzionala

Sailkatzea hauxe da: entitate batek sortutako jarduerak eta dokumentuak identifikatu eta sistematikoki islatzea, eta kategorietan antolatzea, administrazio prozeduraren arauen arabera.

Dokumentuak sailkatzeko koadroa

Administrazio publiko batek gauzatzen dituen egitekoen, jardueren eta lanen zerrenda hierarkizatua da, kodetua eta orokorretik espezifikora antolatua. Oinarritzko mailak serieak dira eta serie horietan espedienteak eta dokumentuak sartzen dira. Espediente eta dokumentu horiek lanei buruzkoak dira eta lanetan, berriz, entitatearen jarduerak, egitekoen esparru zehatzei dagozkienak zehazten dira.

Bada Nafarroako toki entitateek nahitaez aplikatu behar duten sailkapen komuneko koadro bat. Ikus hemen:

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Archivos/Entidades+Locales/Cuadro+de+clasificacion.htm#header4

Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren (e-EMGDE) metadatuaren eskema aplikatzearen ondorioetarako, 22. elementu moduan "Sailkapena" hartuko da.

Prozeduren katalogoarekin duen lotura

Dokumentuak sailkatzeko koadroan sartutako serie bakoitzak lotura zuzen eta bakarra behar du izan entitatearen prozeduren katalogoan identifikatutako prozedura batekin.

Administrazio prozeduren katalogo hau entitateak Estatuak kudeatutako Administrazio Informazioko Sisteman formalki adierazi dituen prozeduren batura da.

JARDUERAKO SEKTOREEN TAULA

Big Daten garrantzia

Datu-bankuak (*Big Data*) epe laburrean, ertainean eta luzean kudeatzeak berarekin dakar sektoreen araberrako sailkapena egitea, informazio-baliabideak kudeatzen dituzten lantresnen arteko elkarreragingarritasuna bideratzeko.

Administrazio publikoetako jardueraren sektoreak

Datu-banku hauek kudeatzen dira *Sektore publikoko informazio-baliabideak berrerrabiltzeko elkarreragingarritasunaren arau teknikoa aplikatzeko gidan* ezarritako sektoreak kontuan hartuz. Haien ibilbidea dela-eta, garrantzitsua da dokumentuen deskribapenean eta espediente elektronikoetan nahitaez sektoreak informazio-elementu bat gehiago balira bezala txertatzea (metadatu gisa). Hartara, espediente bereko dokumentuek sektore bakar baten identifikazioa partekatuko dute.

Dokumentu elektronikoen kudeaketaren testuinguruan, sektoreen garrantzia sailkapen koadroko serie dokumentalekin parekatu behar da eta haiekin lotu ezinbestean.

Jarduerako sektoreen taula

Sektore bakarra aukeratu behar da eta, horretarako, gairik adierazgarriena hautatu behar da, adierazitako informazioaren ezaugarrien arabera.

Erabili beharreko sektoreak hurrengo taulan daude, baita haiei dagozkien identifikadoreak ere.

TERMINOA	IDENTIFIKADOREA
Zientzia eta teknologia <i>Sartuta daude: Berrikuntza, Ikerketa, I+G+b, Telekomunikazioak, Internet eta Informazioaren Gizartea.</i>	zientzia-teknologia
Merkataritza <i>Sartuta dago: Kontsumoa.</i>	merkataritza
Kultura eta aisia <i>Sartuta dago: Aisialdia.</i>	kultura-aisia
Demografia <i>Sartuta daude: Immigrazioa eta Emigrazioa, Familia, Emakumeak, Haurtzarora, Adinekoak, Errolda.</i>	demografia
Kirola <i>Sartuta daude: Kirol instalazioak, Federazioak, Lehiaketak.</i>	kirola
Ekonomia <i>Sartuta daude: Zorra, Moneta eta Banka eta finantzak.</i>	ekonomia
Hezkuntza	hezkuntza

<i>Sartuta dago: Prestakuntza.</i>	
Enplegua <i>Sartuta daude: Lana, Lan merkatua.</i>	enplegua
Energia <i>Sartuta daude: Iturri berriztagarriak</i>	energia
Ogasuna <i>Sartuta daude: Zergak.</i>	ogasuna
Industria <i>Sartuta dago: Meatzaritza.</i>	industria
Legeria eta justizia <i>Sartuta daude: Erregistroak.</i>	legeria-justizia
Ingurumena <i>Sartuta daude: Meteorologia, Geografia, Faunaren eta floraren kontserbazioa.</i>	ingurumena
Landa ingurunea <i>Sartuta daude: Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Silbikultura.</i>	landa ingurunea- arrantza
Osasuna <i>Sartuta dago: Osasuna.</i>	osasuna
Sektore publikoa <i>Sartuta daude: Aurrekontuak, Organigrama instituzionala, Barne legeria, Funtzio publikoa.</i>	sektore publikoa
Segurtasuna <i>Sartuta daude: Babes zibila, Defentsa.</i>	segurtasuna
Gizartea eta ongizatea <i>Sartuta daude: Herritarren parte-hartzea, Marjinazioa, Zahartze aktiboa, Autonomia pertsonala eta Menpekotasuna, Baliaezintasuna, Erretiroa, Aseguruak eta Pentsioak, Prestazioak eta Diru-laguntzak.</i>	gizartea-ongizatea
Garraioa <i>Sartuta daude: Komunikazioak eta Trafikoa.</i>	garraioa
Turismoa <i>Sartuta daude: Ostatuak, Ostalaritza, Gastronomia.</i>	turismoa
Hirigintza eta azpiegiturak <i>Sartuta daude: Saneamendu publikoa, Eraikuntza (azpiegiturak, ekipamendu publikoak).</i>	hirigintza- azpiegiturak
Etxebizitza <i>Sartuta daude: Higiezin merkatua, Eraikuntza (etxebizitzak).</i>	etxebizitza

Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren (e-EMGDE) metadatuaren eskema aplikatzearen ondorioetarako, 12. elementu moduan "Sarbidia" hartuko da.